ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2015eko abenduaren 23a, asteazkena • 150 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea udalaren baratzeen emakida eta erabilera arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketari

Amurrioko Udalbatzak, 2006ko martxoaren 30ean egindako bileran, onarpena eman zion Amurrioko udalaren baratzeen emakida eta erabilera arautzeko ordenantzari, eta ordenantza horren testua 2006ko uztailaren 17ko ALHAOn (80. zk.) argitaratu zen.

Udalbatzak, 2015eko urriaren 29ko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion ordenantza horren aldaketari, eta hori jendaurrean jarri zen hogeita hamar (30) egunez, iragarkia ALHAOn, 131. zenbakian, argitaratuta 2015eko azaroaren 9an.

Jendaurrean egon den bitartean alegaziorik aurkeztu ez denez, eta udalbatzaren 2015eko urriaren 29ko erabakiak bere xedapenen zatiko hirugarrenean xedatzen zuenez "jendaurrean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza hau behin betiko onartutzat joko da, indarrean jartzeko ALHAOn argitaratu beharra gorabehera"; horrenbestez, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2. artikuluan —65.2. artikuluarekin lotutakoari dagokionez— xedatzen duenarekin bat etorriz, argitaratu egiten da ordenantza, idazkera honekin:

4. artikulua. Baratzeen erabilera ematea

a. Amurrioko hiribilduko herritar orok eskubidea izango du ordenantza honetan araututako udalaren baratzeen erabiltzaile izateko.

b. Hori gorabehera, eskatzaile edo erabiltzaileren batek lehendik badauka lurren bat jabetzan edo errentan hartuta, pertsona horri ezin izango zaio udalaren baratzerik esleitu.

c. Emakidadun bakoitzak gehienez ere baratze bat erabili ahal izango du. Salbuespen izango dira baratze historikoak, baldin haien erabilera lotuta badago mugakide duen familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzaren lursail partikular bati, eta jatorriz udalarenak baziren.

d. Familia unitate bereko bi kide edo gehiago erabiltzaile eta/edo emakidadun bakartzat joko dira.

e. Baratzeen erabilera behin-behinean emango da.

Horrenbestez, udalak edozein unetan erabaki dezake baratzeak erabiltzeko emandako baimena atzera botatzea. Hala gertatzen bada, erabiltzaileak lagatako lursaila erabiltzeari utzi beharko dio eta bertan gauzatzen dituen jarduerak ere bertan behera utzi beharko ditu, administrazioak hala eskatzen badio. Gainera, ez du inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez eta ordain ekonomikorik ere, ezein kontzeptupean.

Horren harira, emakidaren epea amaitzen denean, edo emakida aurretiaz baliogabetzean, baldin halakorik gertatzen bada, erabiltzaileak laga dioten baratzea udalari itzuli beharko dio egoera onean, hutsik eta libreki erabiltzeko moduan. Amurrioko Udala berariaz ahaldunduta egongo da bere kabuz bukatutzat jotzeko lagatako baratzeak erabiltzeko edo hartzeko eskubide oro. Beraz, udalak administrazio bidean berreskura dezake baratze horien gaineko jabetza, eta bere kabuz erabaki eta gauza dezake administrazio bidezko utzarazpena, tokiko korporazioen ondasunei buruzko araudian jasotako arauekin bat.

f. Erabiltzaileen eskaeren zerrenda egingo da urtero. Urteko zerrenda itxi ondoren, eta hurrengo ekitaldia hasi aurretik, baratzeen erabiltzailegai guztien artean zozketa publikoa egingo

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

da, eta zozketa horretan aukeratuak izan diren etorkizuneko balizko erabiltzaileak lehentasunen arabera zerrendatuko dira. Baratzeen erabilera zerrenda horri jarraituz lagako da, baldin araudi horrek edo Udal Gobernu Batzarrak baldintza berezirik ezartzen ez badu. Zerrenda horren barruan, lehentasunezkotzat joko dira aurreko erabiltzaileren baten senideak, familia unitate berekoak direnak, bai eta udal jarduerek hartutako beste baratze batzuen erabiltzaileak ere; azken horiek ez dira zozketan sartuko. Ekitaldia amaitzen denean, eskaeren beste zerrenda bat egingo da.

g. Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 120.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, erabiltzaile berri baten alta egitean, dela berrikusteren batean agertu delako, dela aurrez baratze bat eskatu duelako, hartutako erabakiaren onarpena jakinaraziko zaio eta, horrekin batera, adieraziko zaio udal baratzeen erabiltzaileen erroldan alta egingo zaiola, eta horri dagozkion tasak kobratuko zaizkio.

Ordenantza honen aldaketaren behin betiko onarpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko dute interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Aurrekoez gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Amurrio, 2015eko abenduaren 11

Alkatea
M. JOSUNE IRABIEN

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2015.12.23 07:06:41 Z